## LEHEN GERLAKO GUTUN TRANSKRIPZIOA :

**Mont de Marsan le 1 décembre**

**Ene buraso maiteak,**
**Hasten naiz bi lerroen egiten zueri nere berrien igortzeko. Ni arras ontsa sendatu naiz, orai ez dakit izain dudan permisionia Urtatseko gan den asteazkenian ateratu naiz ospitaletik, orai ez baniz permisionez jiten sosaren galdea igorriko dut berehala, orai heldu banintz banuke hortako doia. Igortzen zaituztet ene sekzioneko potreta, orai baino azkarrago nintzen hoi ateratu nuelarik, orduan ez nuen muztatxik, bainan orai baditut behiaren buztana bezain luzeak eta beltzak. Martxa batzuek egiten dugu .....ak lehertzen orai, usaia galdua, ez niz .... gandeneko 20 egunean ospitalean, orai finituko dut eneen berrien ahal bezain laster jakiteko.**

**Zuen seme maitia, Dominique Barnetche**

**Lundi le 1er février 1915**

**Ene arreba maitea igortzen dauzkizut beraz bi lerro ene berrien igortzeko eta denbora berean zuk igorri letraren arrapostuaren egiteko. Ni beti bezala ontsa naiz Jainkoari esker eta zuer ere gauza bera dautzuet desiratzen. Karta hau errezebitzean eta beti errezebitu dut sosa ere, orai kontent naiz igortzen dautzuet ene potreta zoin polita naizen oraino ere ; hik ere igorran hirea Paskalin eta Veronikaren karta hetarik, Manexen hura ere, ba orai ahantziak ditut horko jendeen figura guziak eta elizako liburua eta arrosario pare bat. Orai huntan uzten haut hire berri onen esperantzan eta igor oraiko aldian baino gehixago. B.D.**

**(Dominique Barnetche : 1888-1956 Itsasu.)**

***<u>GALDERAK</u>*** **:**

**1 ) Zer dokumentu mota da ? Egin aurkezpenak (nork nori noiz ?)**

.....

.....

**2 ) Zertaz ohartzen zira jatorrizko gutunaren idazkerari begiratzean ? Nola esplikatzen duzu ?**

.....

.....

**3 ) Nola jakiten ahal da Itsasu aldeko gazte bat zela ?**

.....

**4 ) Lehen gutunean zein informazio ematen die familiakoei ?**

.....

.....

.....

.....

**5 ) Egoera zaila da baina zein erranaldik erakusten du umorea ez duela galdua soldadoak ?**

.....

**6 ) Bigarren gutunean erraten du ontsa dela, baina nola asmatzen ahal da zaila dela egoera, hala ere ?**

.....

.....

.....

**7 ) Arraroa ote da holako gutunen aurkitzea ? Zergatik ?**

.....

.....

**8 ) Zuk ere galdegin ezazu etxean nork egin zuen lehen gerla ? Holako dokumentorik baduzu ?**

CARTE POSTALE

CORRESPONDANCE

ADRESSE

CARTE POSTALE

CORRESPONDANCE

ADRESSE

Lundi le 1er febrile 1915

igortzen dauzkitzut

Ene arreba Maitea besiche igortseko

beraz li lerro ene esac igorri aletraren

eta zeboraz berri esac bethi besala ontsa

arrapostuaren egateko eta sues ere

naiz yain kauri ezker eta carta hau

garisa l'erd dautsui despatzen erasebitu dut

arrasebitzean eta bethi dautsut

ere orai content naiz igortzen dautsut

ene potreta soin Konlita maisen ouino

ere hic ere igoran hura paskalinen

eta veroniquain Carta hetaic bat eta

manechen hura ere ba orai akantziac

ditud korko yenden figoura gusiac eta igor

elisatko liburuia eta arro Mario parebat

orai huntaz uzten haut hire berri onen

esperantzan eta iza oraiko aldian baino

gehichago